

Pamplona como Tolosa de Francia erigió un templo á la memoria de su apóstol Saturnino (Sadurni, Serni ó Cernin en Provençal) y otro á la de su glorioso hijo Fermin, el primer cristiano de Pompeópolis, cuyo nombre viene siendo invocado y bendecido por las generaciones que han habitado esta Ciudad á través de los siglos.

NICASIO LANDA.

Pamplona Junio de 1882.

(De la *Revista Euskara*).

## SEASKATIK OBIRA.

Illun, triste, nagí senti nuen anima, Zeru ta Lurrak beregan gordetzendituen kuch eder au. Gauba bere illunbe itzalakiñ, tristura bere samintasun garratzakiñ, argaltasuna bere eziñegon ta naigabeakiñ, zeuden nere animan, ala nola sube nazkagarriak arkitzen diran, iñoiz edo berriz, chori kabietan.

Euskal-Erria, zeñian nere seaska maitea dalako nere ezur gaisoak utzi nainituen, ikusten zuen nere animak Negar-errian biurtua, eta onek ematen zion dolore aundia, mugik gabeko pena. Ill bear ezpanuen, atera bear izandu nuen echetik kanpora Zerura begiratzera, Zeruko ogiaren billa, konsuelo billa. Banebillen, banebillen, Zerura begira nere biotzeko Euskal-mendietan batetik bestera, eta ustenuen, nere menditartean nere chikitako seaskan arkitzen nitzala, mendien goraberuntza seaska artako estalkien desberdintasuna zala, eta nere ibillerak, seaskaren kulunpan aurra nitzaneko nere joan-etorriak zirala. Aizearen indarrak dantzaerazitzen zituen aritz adarrak, iduritzen zitzaizkidan nere amaren beso eztiak neri festak egiten amorioen indar choragarriak mugiturik; lar-abereen chincherriak gogoratzenzizkidaten seask inguruan izaten nituen jostallu-choak; eta azkenik, nere aldamenetik zijoan ibaieko uraren marmarizchoak bazirudien esan naizidala iñilcho eta boz erdian Munduaren seaskan sortutako gure izkuntz miragarrian: ¡aurra, egizu lo ta lo!.....

Baña ¡ai! Chikitako seaskan negoenean nik eznekien non arkitzen nitzan, baña gaur badakit ¡o nere Jaungoikoa! Negar-errian arkitzen naizala, eta negar au edanaz nere egarría ill bear detala! ¡Al!.... Zerura begiratuaz bakarrik, Euskal-umia bizi litekela, ikusirik illotzak aurrean bere guraso-lege, usantza eta oitura betiko onak, gaur baño bigar bearragoak, aekin jaiok denboren asieran, gure

arraza garbiaren agiria ematendutenak, eta oraindikan, Munduko erri guztiak, ondo izan nai badute, ikasi bearko dituztenak, guzti-entzat onak izanik, Jaunak gizonari emantako Legean zimendatuak daudelako.

Paradisua zirudien arizti batean arkitzen nintzan, eta andik irten-  
tzearekin batean, ikusi nuen aurre aldeko mendi tontorrean eliza  
eder bat, bere kanpantorrearekiñ Zerua jo naiean bezela, eta ala nola  
chikia nintzanean joatenitzan negarrez amaren magalera, ala, nere  
gaurko penak doi-doi jasorik, abiatu nintzan aldapa gora, Lurreko  
amak egiten dituen Ama on arren alderonz. Allegaturik sartunitzan  
barrena, eta ¡O!... ¡an zegoen, argi umill bat aurrean zuela, eguz-  
kiaren egillea!.... ¡Aita Gurea Zeruetan dagoena! ¡An, goiz-sentiko  
argitasuna baño illagoko artan, ikusinuen, begiak ichirik neuzkala,  
nere pena guztien buka gozoa! ¡An, isillik eta bakar, Munduaz aztu-  
rik eta Munduak aztua, zegoen nere anima tristea sufrimentuan pen-  
satzen, bere Aitaganako amorioak mantendurik, eta organoa, gure  
zizpuruak Jaunari bialdizendizkan oslankai eztsu ori isillik zegoela-  
rik, iruditzenzitzaidan entzuten nuela musika miragarri bat, ¡a!....  
¡siltasuna da askotan animaren musikik aundiena! Banegoen bada,  
eta eztakit noiz arteraño egongo ote nitzan era onetan, aur negarra  
aditu ezpanu nere aldean. Begiraturik, ikusinituen eskuchoak elka-  
rri emanik bi aur chiki belauniko erregutzen, eta oen ondoan, ema-  
kume beltzez jantzitako bat; zan alargun bat bere biotzeko puska  
gaisoakin, jiruak zeuden negarrez! Alargunaren malkoak jotzen zu-  
ten lurra umerzurtzenzat aita esnatu naiean bezela, eta biltzen zizka-  
ten berenak bere umeai, gordenaiean bezela ¡ain ziran ederrak ama  
tristearentzat! ¡O Jaungoikoa!... guztien erreguak entzuten badituzu  
¡nola entzungo dituzun alargun eta umezurtzenak!

Irten nintzan elizatik, illunabarra zan; nola eznekiela pasazitzaiz-  
kidan orduak elizan, eta ez da milagro, ¿zer da denbora, betiraunde  
edo eternidadeaz oroitzen geranean? Echetik urruti arkitzen nintzan,  
eta erabaki nuen edozein baserrian gauba pasatzen gelditzea.

Mendi egal luze baten bidesigor batetik nijoala, ikusi nituen arzai  
batzuek, baña isillik zeuden; ¡etzan entzuten Euskal-mendietan den-  
bora bateko uju eta irrintzi pozkidatsurik; Eguzkiak agurtzen zuen  
betiko egun ura; choriak isiltzen ziran; illargia ateratzenzan; Zeru-  
pea apainduzan; Euskal-izar disdizaria aurrean neukan; aritz-ostoak  
erortzen ziran nere esperanza maite batzuen eraras; lurgaña loak  
artenzuen, eta arkaitz zirrituetatik agertzenziran urak, ziran, nere  
anima tristearentzat, nere Euskal-mendien negarrak! Nere biotza  
lertuko zan, negarrez asi ezpanitz, aritz ostoakin negar au chukatu-

rik. Gauba nuen gañean, eta zan Azaroko gauba, defuntu gauba, ¡beti izango dana nere gogoan! Inchaur-arbola aundi baten pian, ageri zan untzak erdi estaldutako baserri zar bat, gurdi bat eta inñatorra pillaka atarian zituela; ateak zeuzkan zabalik.

—Abe Maria—euskaldunok echeetan sartzeko ditugun itz pozgarri oekin, eranzun zien barrindik antsi illun batek, eta nigarren aldian esan nituenean, krisellua eskuan zuela agertuzitzaidan, negar ta negar, emakume bat. Galdetu nion gau artako ostatua emango zidan, eta erantzun zidan ostatu tristearen allegatzen nintzala, baña, ala nai banuen, gelditu neiel, eta ezagutzen ninduela. Orduan jakindunuen zala, ni mendi-bidetik bezela, ura beko gurdi-bidetik bere echera etorritako, nik elizan aurrakiñ ikusien alargun triste, zeñaren senarra azkeneko gerra negargarriak il zuen. An zitu en ondolik talo eskaka here semechoak, eta, ikusi nituenean, nion nere barruan: ¡O Jaun aundia! ¡nolako ote da euskaldun chiki oen etorkizuna! ¿ez ote dute euskaldun ill bear?

—Aita daukat Elizakoak egiñik—esan zidan,—betor, nai badu, gurekiñ, bere gelara.

—Sartu nitzan gelan, eta ikusi nuenean aiton errespetagarri ura eriotzeko tranzean Gurutzeari laztandua, Jaunari kontu emateko bere azkeneko orduaren zai animaren sosegu gozoan, zarminiak ichutua baña animako begiak, Fedea, Esperanza ta Karidadea, agertzen zirala bere itzetan beren edertasun guztian, ja!... orduan, nik eztakik nolako ta norañoko poza sentitu nuen, eta bihurturik alargunagana, esan nion: ezda au ostatu tristea, baizik zorioneko ostatua; ostatu tristerik baldin bada, au izangoda Jaunak bere eskutik utzitakorenbat, baña eliza chiki bat dan echea, da zorionekoa, da pozgarria, da Zeru piskabat Lurrera jachia.

Andik laster etorri ziran auzoko kristau on batzuek, eta, oen artean, aitonaren bi lagun zar, negarrez bi aur chiki bezela; esan zioten zerbait aitonari, eta onek eranzun zien:

—Utzi nazute isillik; itz egin degu aski gure denboran, eta orain Jesusekin bakarrik itz egin naidet; aurki esango dizkitzutet nere azkeneko itzak; bitartean, eska zaiozute Ama Birjiñari jabetu dedilla, errukiturik, nere anima gaisoaz, eta bere mantupean arturik, eramandizaiola Jesusi.

—Aitona isilduzanean, bere, lau urte inguru izango zituen, illoba chikienak, egin zuen farra; ¿zitzaion Zerutik guri ez bezelako berri onen bat etorri? Dudik gabe. ¿Zer ote da aingeru izatea!....

Bageunden orazioan, eta.... ¡jura izerdi otza, ura asnase larria, ura ikara agertu ziran, bat batean, aitonaren gorputzean! ¡O erio-

tza! gauza bat da zutaz itz egitea, eta beste bat gugan zer egiten dezun aldetik ikustea! baña ez gaituzu izutzen ¡ez! gurutze bat gurekin degula!

Aiton gaiñoak, bizia bazijoakiola ezagutu zuenean, piškabat alchatzeko esan zigun, eta ondoren, gurutzeari oñean muñ emanik, esan zuen :

—¡Iltzera noa! jartzaitezte guztiak belauniko, eta ni bezela arkitze arteraño, gogoan izan beti, nere aitari, orain zuek neri bezela, aditu nizkan itz oek:

«Negar ez egiñ; eman eskerrak Jaunari; gurasoen Gurasoak deitzen nau gaur ¡poztuzatezte! ¡bizizatezte! ¡beti! Beraren Legean. ¡Inaši!—esan zion errañari—azi ditzatzu, aingerucho oiek, Jaunaren amoriozko beldur santuan, eta ez dira umezurtz izango; ¡zorionekoak mundu ontako neke eta sufrimentuak! ¡ezazu sekulan Zerurako zeratela, ¡ez! ¡Zeruan!..... bildugaitzela, aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.»

Au esanik, burukoen gañera erori zitzaion burua, dotriña santua beste libururik ezagutugabe, nola bizi ta ill, zekien buru ura!

Jaso nai izanduzuen, azkeneko aldiz gurutzea agurtzeko, baña bere biotzaren esana eziñ egiñik, au Jaunari bialduaz iltzan!

Onela bukatu zituen bere egunak Euskaldun zar arrek, defuntuen illeko gau batean, eta ill artan bertan, joanik ni, beste asko bezela, Kanpo-santura, erakutsi zidaten bere obia.

¡O gaurko Euskaldunak! Zuen sufrimentuak pisuegiak badira, zoazte, zoazte eriotzean arkitzen diran gaiñoak ikustera, eta andik, obi baten ondora; ¡an arinduko zaizkitzute! ¡Bai! Obia, bere iñiltasun, illuntasun, moteltasun eta ar utzakin, da gure egiazko seaska, eta seask'artan esnatzen geranean ¡a!.... ezda izango geiago ¡Euskal-erririk!..... baña Jaunaren miserikordiak emango digu betiko ¡Zeruerria! eta Euskaldunok ez degu naiko gauza bat besterik, bakarrik maitagarria: ¡Jesus!

ANTONIO ARZÁC ETA ALBERDI.

1882-ko Urrian.

